


Atsekabe zaitut



Olaia Prego - Peio Santa Cruz
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Irati Jimenez	3
Sarrera	3
<i>Atsekabe zaitut</i>	
• Kokapena	3
• Gaia	4
• Argumentua	4
• Istorioa	4
• Pertsonaiak	6
• Egituraketa	7
• Baliabideak	8
Iritzia	9
Bibliografia eta webgrafia	11

IRATI JIMENEZ

1977an Mundakan jaiotako Irati Jimenez Uriarte euskal idazle eta kazetaria da, ikus-entzunezko komunikazio gradua ikasi eta Euskal Telebistan edota Euskadi Irratian kazetari aritu dena. Idazteko zaletasuna familiaritate datorkiola esan daiteke, Edorta Jimenez idazle eta kazetariaren alaba baita.



Nabarra kultura eta gizarte gaien inguruko aldizkariaren azken zuzendaria izan da eta gaur egun *Consumer Eroski* aldizkari eta webgunearen euskara edukien arduraduna da. Horrez gain, enpresei interneterako aholkularitza eta zerbitzuak ematen lan egiten du.

Hainbat generoetako lanak idatzi ditu, ipuinetatik saiakerara, eta baita oso sarituak ere: *Bat, bi, Manchester* eleberriarekin Augustin Zubirikai nobela laburren saria 2006an, *Nora ez dakizun hori* eleberriarekin Igartza Saria 2009an, irakurleek ematen duten Beterriko Liburu Saria 2010ean, *Laranja azalaren negarra* ipuinarekin Donostia Hiria Saria eta *Atsekabe zaitut* liburuarekin Bizkaiko Liburu-saltzaileen "Farolillos de papel" saria, besteak beste.

SARRERA

Irati Jimenezek 2010ean idatzitako eta bere 3. fikziozko liburua honetan errealak diren emozioak jorratzen ditu fantasia puntu batekin moztortuta. XXI. mendeko Bilbo paralelo eta ilun batean Eme bizi da Katu kalen, erdi katu erdi emakume dena. Katua Atsekabea da, atsekabea ekartzen dio bere ingurukoei, hori da bere lana; hori da Katu kalen bizi direnen katu guztien lana. Hala ere atsekabeak bera jo du, aldatu egin da eta ez du bere burua ezagutzen, ez dago gustura bere burua den horrekin, aldatu nahi du baina beldur da, egingo diotenaren eta galduko duenaren beldur.

Nobela laburra da, ipuingintzatik ere hurbil dagoena eta errealismoa eta fikzioa era lausotuan nahasten dituena, ezin baitira argi eta garbi desberdinu noiz ari den mundu errealean eta noiz fantasiosoan, biek bat egiten dute. Hala ere, eta naiz eta nobela ilustratua izan, ez da inondik inora haur-literatura, helduentzako nobela ilustratua da, nobela iluna, sexuala eta nahiko gordiña.

KOKAPENA

Idazleak ez du garaia argi eta garbi zehazten, baina seguruenik XX. mendeko azken hamarkadan edo XXI. mendeko lehen hamarkadan gertatzen da, Bizkaiko hiriburu den Bilbo paralelo batean, Bilbo ilun batean. Bertan Katu

kale izeneko auzunean bizi dira pertsonaiak, pertsona eta katuen arteko izakiak. Negarguraren Plazak, Borroka Ahaztuen Elizak, Puzzle hautsiak, Tristuraren Etxeak etab. osatzen dute Katu kale. Bilbo errealeko lekuak ere ageri dira hala ere, adibidez, Deustu eta Abandoibarra. Istorioan Katu kale delakoak garrantzia handia du, pertsonaia nagusiaren aldaketan garrantzi handiko lekua baita, lehenengo gorrotatu eta gero benetan maitatzen edo maitemintzen duena.

GAIA

Istorioaren gai nagusia atsekabea da eta horrekin batera beldurra, sentimendu unibertsalak direnak, gizaki orok bizitzaren momentu batean edo bestean sentitu dituenak. Norbera ez ezagutzearen atsekabea eta aldatzeko beldurra, hain zuzen. Adiskidetasunak ere pisu handia du istorioan.

ARGUMENTUA

Guk ezagutzen dugun Bilboti aparte badago beste Bilbo bat, paraleloa dena. Bilbo berri hori Katu kale izenez ezagutzen da, animalien eta txakurren borroka lekua. Katuen zeregina atsekabea mundu osoan zehar zabaltzen da, gizakien zoriontsu izateko helburua zapuztea eta haien bizitza iluna eta tristea bihurtzea. Hori da Emeren eta Hamarren lana, mundua leku iluna bihurtzea. Hori egiteko gogotsu atera ziren fakultatetik, mundua aldatzeko gogotsu. Hala ere Eme aldatzen hasia da, benetan gorrotatzen bere lana, bere biktimen atsekabea sentitzen du eta haien zoriontasunaren faltak ere eragiten dio bere bizitzan. Bere bizitza aldatu nahi du, baina beldur da besteek egingo diotenaren beldur, Hamarrek ere bizkarra emango diotenaren beldur.

ISTORIOA

Eme eta Hamar lagun oso onak dira, ez fakultatean elkar ezagutu zuten momentutik baina bai Hamar Eme salbatzearen txakurrek ia hil zutenetik. Hamarrek jarri zion ezizena Emeri eta alderantziz, Hamar hamar anaien artean gazteena delako, eta Eme bere idazlanak "m" letraz sinatzen dituelako. Erdi gizon-emakume erdi katuak dira Katu kaleko bizidun guztiak eta haien lana atsekabea pertsonen mundura ekartzea da. Deustuko lantokitik enkarguak bidaltzen dizkiote Emeri, eta hileko lehen astelehenero koaderno beltz bat erosten du bere "biktimen" txostena idazteko. Haietako bat, Emerentzat latzena bihurtzen ari dena, Ginebra Erreginarene kasua da; honen dibortzioarekin batera azaldu zen katua eta guztiz atsekabetu du emakume gizajoa, katuak bakarrik maite duela konbentziturik dago.

Emerentzat gero eta zailagoa da bere lana betetzea, ez dago gustura, bera ere atsekabetu egiten du lanak. Fakultatetik irten zenean gogotsu zegoen, mundua aldatu zezakeela konbentziturik, baina bera da aldatu dena. Hamarrekin geratzen da betiko tabernan bete atsekabe propioa ginebraren

laguntzerik ahazteko. Eguneroko errutina du hori, lana eta mozkorra, beti Hamarrekin. Lagun onak dira, ia ia senideak, kale katuk anaitu baititu, baina elkar asko maite duten arren ez dira maitaleak, Emek neskak ditu gustoko.

Katu beltzak, Miseria Lagunak, Iluna... hainbat izen eman dizkiete gizakiek, baina inork ez daki nortzuk diren izaki horiek; Atsekabea dira. Eme oso ona da bere lanean, baina jada ez du gogoko, bere buruari nazkatzen hasia da. Bere lana erraza da: biktima urrunetik aztertu, Miss Converse kasu, telefonoari begira kontzertu batean ezagututako mutil baten mezua itxaroten ari dela; azkenean, ea hurrengo batean elkar ikusten duten erantzuten dio mutilak; neska poztu egiten da, baina ez luzarorako, katuak hurbildu eta atsekabetu egiten du bere presentzia hutsarekin, mezua bidali diolako eta ez duelako deitu, gehiago ikusi nahi ez duenaren seinale. Lana amaitutakoan txostena idazten du koaderno beltzean. Hain ona da bere lanean, ikasle berriek bere bidea jarraitu nahi dutela.

Baina ez da guztia hain erraza, haien atzetik txakurrak dabilta, eta hainbat katu hil dituzte haien lana eragozteko. Hamar eta Eme ere ia hil zituzten fakultaterako lan bat egiteko zeudenean. Emek kasu zailena hautatu zuen, eta Hamar atzetik joan zitzaion Emek jakin gabe; kasua hau zen: seme eskizofrenikoa, aita polizia eta pistola bat etxe berean, gehiegi zen baina Emek ez zuen espero tiroaren zaratak txakurrak ekarriko zituenik. Hamarrek eta Emek alde egin behar izan zuten eta kale itxi batean geratu ziren txakurrek inguratuta. Hamarri haginka egin zion txakur batek, eta hiltzorian utzi zuen. Bertan egin ziren lagun, Hamar hiltzorian zegoela; geroago katuak etorri ziren laguntzera eta salbatu zuten. Katuen hiletetan katu asko biltzen dira, musikarik gabe, eta txakurrek aurkituko ez duten lekuetan esku biluziekin egiten dituzte zuloak, hildakoak lurperatzeko. Oraingoan 3 izan dira, haietako bat katu soldaduen kapitainaren anaia bakarra.

Bulegoan koadernoak erakustea tokatzen zaio, eta trajea jantzita Erriberako markaturen teilatuan itxarotea agindu zaio. Hamar horditu egiten da bertan egotearekin, baina Emek jada ez du gustoko, ezin dio Hamarri esan, beldur da. Hala era, ez du ulertzen bera nola ez den konturatzen. Itsasontzi heltzen denean, bertara doaz, inspeksioa pasatzera. Orduan eman diote berria, mendebaldean lan asko dago eta norbaiten faltan daudela esaten dio inspektoreak Emeri, Emek badaki ez zaiela inor falta ez du entzun hil-kanpairik, haiek garbituko dute traidorea. Berari eskaini diote postu berria Hamar ez den beste lankide batzuen artean mugitzeko aitzakiarekin, eta berak uko egin dio, urdaila mikaztuta.

Berriro ere mozkortu da Eme Hamarrekin batera, atsekabea sendatzeko, baina oraingoan ez da bere etxera bueltatu, Katu kaleko Andereñoarenera joan da, bere behar sexuala asetzera, atsekabea sendatzera, hori besterik ez, emakume hura hainbeste urteren ostean berarekin maitemindu ez delako eskertuz. Baina lanera bueltatu behar du goizean, Ginebra Erreginarengana. Egunkarian lan bila aurkitu du emakumea, baina katua sartu bezain laster merezi ez duela erabakitzen du. Orduan hasi da katua negarrean eta erabaki du nahikoa dela. Alde egin du, bere bizitzan lehenengo aldiz bukatu gabe utzi du lana. Bakea lortu du behingoz, ondo sentitzen da, Katu kale inoiz baino

ederrago ikusten du. Negar egiten du, hainbeste gorroto izan duena orain nola maitatzen duen ikusita. Bertako biztanle sentitzen da inoiz baino gehiago.

Orduan kontatzen du nor zen GinebraErregina, bere aldaketa eragin zuena, Maria izena zuena, hain zuzen. Maletarekin taxiari itxaroten aurkitu zuen lehenengo aldiz, neskatoa, ederrago, gazteago, hunkigarriago, 6 hilabete lehenago dibortziatu zenean. Katua hurbildu zitzaion eta neskatoak laztandu zuenean negarrez hasi zitzaion, bere bizitzarekin zer egin ez zekiela. Orduan egin zuen Emek labain lehenengo aldiz. Mariarekin hasi zen, arrazoirik gabe eta orain bukatu da Emerentzeko; zoritxarrez ez da zigorrik gabe geratuko.

Katu kale Andereñoarengana itzuli da orduan, plazerraren bila, baina espero ez zuenarekin itzuli da, maitasunarekin. Andereñoak aitortu dio maite duela, maiteminduta dago eta sufritu egin du Eme ez zegoenean, beste norbaitekin zegoenean eta bera behar ez zuenean, hamaika urtetan zehar egon da maiteminduta. Hitz horiek hasieran Eme ito egin dute, berak bere burua maite ez zuenean Andereñoak maite zuelako, minik ez emateko beti urrun eta salbu zuen Andereño laztanari.

Ettxera bueltatzean Hamar aurkitu du etxean, zigarrokinz betetako hautsontziari kea dariola eta bizarra egin gabe. Orduan aitortzen dio Hamarrek berak eskatu duela Emeren zigorra betearaztea, Eme akabatu behar du. Emek eskertu egin dio, berak erabaki hori hartu izana, Hamarrentzat ere ona delakoan. Orduan bananduko dira lehen aldiz elkar ezagutu zutenetik, eta era krudelean amaitu beharko dute haien adiskidetasuna. Emek aditu du bere aldaketak Hamarrengan ere eragin duela; fakultatek irten zirenean desastre hiria sortu nahi zuten eta urtean egun batez jai hartu hirik egun batez poza ezagutu zezan. Baina jada ez dira berdinak, Emek ez du mundu hori gustuko ja, besteen ametsekin maitemindu da. Hamarrek Eme katuari haginkada batez hil baino lehen gogoratzen dio miseriak erakusten duela poza, baina Emek erantzuten dio miseria dakartenak miserableak direla.

PERTSONAIAK

Eme. Pertsonaia nagusia da, emakume-katu artekoa, nahiko librea, besteek jartzen dizkioten arauak edo hobeto esanda, ematen dizkioten aginduak betetzea kostatzen zaiona. Atsekabea da, gainerako Katu kaleko katuen antzera eta atsekabea eta tristura zabaltzea dute helburu. Fakultatean zebilenean, munduak jartzen zizkion desfioei aurre egiteko prest zegoen, borroka bila zebilen, gainerakoek “Sua” izena ematen zioten. Bere lana hasieran oso gustuko zuen, mundua aldatu nahi zuen, orain, ordea, gorrotatzen du. Bere lanean jendearen benetako izana asmatzen du, bihotzera begiratzen die eta Atsekabearen hazia bertan landatzen du, beste guztia haiek egiten dute. Baina nazkatzen hasia da, ez du horrelakoa izan nahi, ez du jendearen zorientasuna pozoitu nahi.

Hamar. Emeren lagun mina da, bien arteko harremana oso estua da eta zenbaitetan estutasun horrek arazoak suertatuko dizkie biei. Fakultatean ezagutu zuten elkar, baina ez ziren hasieratik adiskide egin, Hamar txakurrek ia

hil zutenean egin ziren lagun. Emek lehen aldiz ikusi zuenean kankailua iruditu zitzaion, “*begi urdinak -ia zuriak-, beso luze, hanka palo, baserri ume. Berbaldun, korta seme, koittadu*”, (57) horrela deskribatzen da liburuan. Hamar naien artean gazteena da, inork espero gabe Katu soldadu izateko azterketa guztiak bikain gainditu zituena. Asko hitz egiten du eta asko gustuko du *The Godfather* istorioa, baina bere amaiera propioa du istorioarentzako. Fakultatetik atera zenean Eme bezalakoa zen, baina bera ez da aldatu, Emeren aldaketak asko arduratzen duen arren.

Ginebra erregina. Emeren biktima zailena, Eme zen bezalakoa izatetik aldarazi duena da. Maria du benetako izena, dibortziatu berri zela, behin kalean taxi bati itxaroten zegoen; orduan gerturatu zitzaion katua, eta orduetik aurrera atsekabea ekarri dio bere bizitzara, berak jakin ez arren. Are gehiago, katua bakarrik maite duela iruditzen zaio.

Miss converse. Emeren beste biktima bat da, protagonistaren ustetan azkenengo hau besteak baino errazagoa izan dela iruditu zaio. Kafetegian harrapatzen du Emek telefonoari begira, aurreko gauean kontzertu batean ezagututako mutilaren seinaleren bati itxaroten. Azkenean mezua jasotzen duenean Eme hurbiltzen zaio (katu itxuran) eta atsekabetu egingo da. Berarekin mutilak berriro geratu nahi izango ez duela pentsatzen du, deitu ordez mezu bakar bat bidali baitio.

Inspektorea. Hamar eta Emeren lana hilean behin ikuskatzen duena da, mendebaldeko lanaren berri ematen diena hain zuzen ere.

Katu kale andereñoa. Emeren maitalea da. Eme hamaika urtez maitatu du, baina Emek beti izan du bere bizitzatik urrun, minik ez emateko, kontrakoa lortu duen arren. Emeren behar sexualak asetzen ditu, eta laguna dela ere esan daiteke. Amaieran, andereñoak Emeren beharra duela eta maiteminduta dagoela aitortzen dio.

Tabernaria edo Bi eta Bapez Jauna. Liburuan zehar aipatzen duen beste biktima bat da.

Neke edo Nestor. Bost urteko umea eta Emeren biktima, “*betile luzeen eta kaleko argien mirari epel eta hauskorra baino ez da*” (18). Gurasoek Nestor deitzen dute, baina Emek Neke izenez deitzen du. Umea lo dagoenean agertzen dira Hamar eta Eme bere lehioan, amesgaiztoak eraginez. Emek labain egiten du berriro, gaizki sentitzen da umeari egindakoarekin eta bere golkorako barkamena eskatzen dio.

Izerdi Tanta neskatoa. Eme elkarrizketatu zuen, bere “Atsekabe zaitut” lana zela eta. Elkarrizketan zegoela izerdi tanta bat erori zitzaion titi artetik eta Emeren desira sexuala piztu zuen, horrela izendatu zuen berak. Neskatoak esan zion fakultatean denek jarraitu nahi zutela bere eredia.

EGITURAKETA

Liburu honen egituraketa aztertzeko orduan, liburuaren antolaketa beste liburuekin alderatuz, batez ere ohiko nobelekin alderatuz, nahiko desberdina dela ikustea ageri da. Lehenik eta behin, testu laburrak ageri dira orrialde bakoitzean eta marrazkiak ere ugariak dira. Bigarrenik, ez dago kapituluetan banatuta, hortaz etendura gabeko istorioa ageri da *Atsekabe zaitut* liburuan, jarraia da.

Horrez gain, hasieratik ez dago argi protagonista zer den, hau da, katu bat edo pertsona bat baldin baden. Liburua irakurtzen den heinean konturatzen da irakurlea nor den eta nolako den protagonista, zein den liburuaren benetako koska, hain zuzen.

Are gehiago, liburuaren haria lineala da orokorrean, hau da, ez ditu denboran jauzi asko egiten. Egia da, jauzi baten bat egiten duela, baina momentu puntualetan gertatzen dira, Hamar eta bera nola ezagutu ziren azaltzen duenean eta Ginebra erreginaren istorioa azaltzen duenean.

BALIABIDEAK

Iratz Intziartek eginiko irudi beltz eta sendoek nobelaren gai nagusia den atsekabea adierazten dute eta iluntasuna areagotzen dute, zuri beltzean mantentzen dituelako. Horrela, neurri batean, komiki itxura ere hartzen du liburuak. Irakurteraztat jo daiteke laburra eta arina delako, baina errealitatea era fantasiaren arteko nahasketa lausotuak gogoeta eskatzen du liburuak ulertzeko. Marrazki ugari izateak ez du esan nahi haurrentzako liburu bat denik, are gehiago, irudiak ulertzeko orduan, erraztasun handiago izango du heldu batek gazte batek baino eta seguruenik gusturago sentituko da irudiek duten maila ezplizitu altua dela eta.



Narratzailea argi eta garbi orojakilea da. Une oro, azaltzen ditu pertsonaien sentimenduak eta zelako jarrera duten ekintza bakoitzaren aurrean, gehien bat Emeren kasuan, bere buruaren barnean dagoela ematen duelako. Tipografikoki ere desberdintzen du autoreak, Emeren pentsamendak kursibaz idatzita:

«Izenak zerbait esan nahi duen leku bakarrean, Emek beste izen bat irakurri dio.

Zu, mutiko, Neke deitzen zara.» (18)

«Zerbait esan nahi du, eta esan nahi dituen guztiak ezin esatekoak dira. *Atzo bi mila txakur hilko nituen zure anaia salbatzearen eta gaur berrehun mila hilda ere ez dugu berreskuratuko.» (40)*

«—Anaia hil diote, joder, eta ez da behin ere hautsi, konturatu zara?
—konturatu naiz, bai.
Gezurra.
Denok gaude hautsita, Hamar.» (41)

«—Sahietsak hautsiko dizkidazu, jefa.
Eta birrindu egingo zaitut. Ez pentsa birrintzeko beste maite ez zaitudanik.» (44)

Aipatu beharra dago amaiera istorioa amaitu baino apur bat lehenago idazleak argitzen duela. Istorioaren gizakien munduaren eta katuaren munduaren arteko nahasketa baliatzen da hori egiteko. Beraz, esan daiteke istorioa lineala izan baino lehen zati hori gertatu baino lehenago aurreratzen duela idazleak. Hala ere batean bakarrik irakurrita ez da igartzen Eme eta Hamarren amaieraren inguruan hari dela hizketan:

«Goizero-goizero Deustuko tabernara botilak eramaten dituen zerbitzariak bi katu baino ez ditu ikusiko. Bata beltza, bestea grisa. Hasieran, elkarri muxua ematen ari direla pentsatuko du [...]. Hobeto begiratuta, erraz ikusiko du bietatik txikienak, grisak, bestea atzamarkatu egingo duela eta haginkada bakarrarekin samatik oratu [...]. Gau horretan, oster, ametsetan, gizon trajeduna ikusiko du ibaiertzean, besoetan zeukan hildako andrearen gorputz oraindik beroa, ahoan bere odola eta negarrez betea begirada...» (92)

Pasarte horren ostean, Emek eta Hamarrek hizketan jarraitzen dute horregatik ez da idazleak irakurleari amaiera aurreratu diola aditzen, baina eta gero Hamarrek Eme hil egiten duenean, argi eta garbi ulertzen du irakurleak gertatutakoa.

IRITZIA

Irakurri berri dugun *Atsekabe zaitut* liburua, Irati Jimenezek idatzi duen eleberria da. Bertan, katuak eta Bilboko kaleak nahastu ditu. Munduan zehar atsekabea zabaltzea da liburu honetako protagonisten lana, eta liburuaren istorioa aztertuta, bi lagun minen arteko adiskidetasuna galtzearekiko beldurra ere ageri du protagonistak, galtzearen beldur da bera ez delako berdina, aldatu egin delako.

Alde batetik, erdi katu eta erdi pertsona den gizakia agertzen da, Irati Jimenezen eleberriaren protagonista. Izenik errealik gabeko pertsonaia, “Eme”, hain zuzen, gizakiaren bi alderdi gatazkatsuen ispilua bilakatuko dena. Emek

atsekabea ekarri izan du urte askotan zehar gizakien bizitzara, baina ez du gizakien zorientasuna gehiago zapaldu nahi, konturatzen da zorientsu izateko eskubidea dutela, bizitza bizitzeko beste modurik ez dagoela. Aldatzea eragozte dion bakarra bere lagun Hamar da, bere lagun bakarra galtzeko beldur da. Lagun minak dira baina askotan mina eragiten diote elkarri, Hamarrek Emeri aldatzen usten ez diolako eta Emek Hamarri bere jarrerak arduratuta duelako. Lehen hainbeste maite zuen katuen mundu ilun horrek, orain ito egiten du Eme.

Azken finean zorientasunaren eta atsekabearen arteko gogoeta bat dela esan daiteke, Irati Jimenezek nobelaren azpian gordetako. Eme amaieran gizakiak zorientsu izatea helburu duela konturatzen da eta Hamarrekin elkarrizketan dabilele honek erantzuten dio horretarako atsekabearen beharra duela gizakiak, zorientsu zer den jakiteko miserian bizitzea zer den ere jakin behar dela. Hala ere, Emek jada ez du horrela pentsatzen, miseria ekartzen dutenak miserableak direla dio, hau da besteei kalte egin nahi dietenak euren bizitzekin pozik ez daudelako egiten dutelako. Horretan datza gizakiaren bizitzaren zentzu tragikoak. Egia dela ez dagoela poztasunik tristurarik gabe, baina gure erabakia da zuloan geratzea edo aurrera jarraitea.

Aipatu beharra dago Iratz Inziartek ere eginiko lan paregabea. Eleberri honen ilustrazioen egilea izan den artista honek, modu ezin hobean irudikatu ditu liburuan zehar agertzen diren pasarteak bere ilustrazioen bidez. Eta ez hori bakarrik, lan handia egin du miseria iluna hain argi adieraztea ez baita erraza. Esan bezala, fantasiako munduaz baliatu da Jimenez mundu errearen gainean hitz egiteko. Gizakion kezakak eta emozioak adierazi ditu giza-katuen bizitzetan. Harrigarria da nola lotu dituen istorioko puntu guztiak errealitatearekin. Katu beltzaren eta sorte txarraren topikoa, txakurra gizakiaren lagun eta babeslea den beste topikoarekin egin duen elkarketa eta horretan oinarrituta sortu duen Bilbo paraleloa ezin hobeak dira.

Horrez gain, liburu osoan zehar aldaketen inguruan ari da eta horrek suposatzen duen beldurraren inguruan. Izan ere, aldaketek berdurra sortzen diote gizakiari, iluntasunak bezala. Horregatik pertsona askori gehiago gustatzen zaio argitasunetik ibiltzea, iluntasunetik baino. Azken batean erosoagoa izaten delako eta gizakiari ahalik eta esfortzu gutxien egitea gustatzen zaiolako. Baina, gizakia argiz zein ilustasunez osatuta dago eta bide distiratsuenan katu bat izango du bere zain, zorientsu izateko sufritzen ikasi behar dela gogoraraziko diona. Horretan dago gakoa, helburu bat lortzeko orduan, ahalegina egitean beharrezkoa egin behar dela ikastea.

BIBLIOGRAFIA

Atsekabe Zaitut, Irati Jimenez. Txalaparta.

WEBGRAFIA

<http://www.txalaparta.eus/libro/4095/atsekabe-zaitut/>

<http://atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/>

<http://atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/il-gida-atalak.pdf>

<http://www.gaztezulo.eus/kritikak/liburuak/quotatsekabe-zaitutquot>

http://es.wikipedia.org/wiki/Irati_Jim%C3%A9nez

<http://kritikak.armiarma.com/?p=5013>

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=754>

YouTube

<https://www.youtube.com/watch?v=Lx6BYOkYqeY>